

MERKATU SEGMENTAZIOA

Dantza eskolaren merkatu segmentazioa hainbat irizpideren arabera egingo dugu, eta horrela bezero potentzialak zehaztuko ditugu.

5-50 urte bitarteko pertsonak hartuko dute parte. Eskola ume, gazte eta helduentzako izango da, **dantza ikasteko edo hobetzeko interesa** dutenentzat. Genero aniztasuna baloratzen dugu, uste dugulako generoak ez duela mugarik eta gizarteak errespetatu behar duen gaia dela. Gure enpresako **kalitatea bezeroek baloratuko** dute, eksklusibitatea eta esperientzia pertsonala kontuan hartuta.



Dantza ikasteko hainbat **ezaugarri** daude, adibidez, osasuna (kirola egiten), artea (sentimenduak espresatu) eta gizarte harremanak edo auto-adierazpena hobetzeko aukera. Gainera, eskolaren eskaeraren arrazoietako bat, zerbitzu eksklusibo bat eskuratzea da, masifikaziorik gabe. Halaber, profesionaltasun handiko zerbitzua bilatzea da gure helburua. Bukatzeko, leialtasuna eskaeraren arrazoietako bat da, eskaintzen den eksklusibitate eta zerbitzu maila altuagatik, bezeroak maiztasunez itzultzeko joera izango dute.

Nitxo osatutako merkatua denez, gure enpresak bezero konketuak edukiko ditu, ezingo da edozein pertsona joan dantza eskolara.



Dantza eskola hau merkatu nitxoan kokatuko da, hau da, masa-merkatuetatik aparte, hiriko erdigune eksklusibo batean. Bezeroek maila altuko zerbitzu eksklusibo bat jasoko dute, instalazio eta irakasle kalitate handikoekin.

Eros-ahalmen handia duen eremu batean kokatzea komenigarria izango da.

Gure helburua, gure bezeroek dantza ikastea da, ondo pasatuz eta esperientzia berezi bat bizitzea luxu bezala posizionatzeko. Gainera, bere egunerokotasunaz ahaztu eta deskonektatzeko, bere arazoetaz ahazteko aukera bat emango diegu. Bukatzeko, gure zerbitzuak pertsonalizatuak izango dira hau da, bakoitzaren araberakoak izango dira klase ordutegiak adibidez. Irudimena ere oso garrantzitsua izango da, modu kolektiboan proiektu txikiak aurrera eramanez.